


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo ziren 2003ko abuztuan

Urte arteko hazkunde-tasa (2003ko abuztua, 2002ko abuztuarekin alderatuta) %3,2koa izan zen.

2003ko abuztuan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorra %0,1 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta abuzturako urte arteko tasa %3,2ra iritsi zen, EUSTATEN datuen arabera. Urteko lehen zortzi hilabeteetako tasa %3,0 igo zen iazko abenduaren aldean.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1995-2003



(*)eskainitako gehikuntza abuztuko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldian (2003ko abuztua, 2002ko abuztuarekin alderatuta), lan-eskuaren kostua %5,8 igo zen eta lehengaien kostua, berriz, %1,3.

2003ko abuztuan guztizko kostuak izandako %0,1eko igoeran eragin desberdina izan zuten azpisektore nagusiek: Eraikinak azpisektoreko kostuak ez ziren aldatu (%0,0) eta Obra Zibilekoak, berriz, %0,2 igo ziren, joan zen uztailaren aldean. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran ere, modu desberdinean igo ziren: Eraikineko kostuak %3,1 igo ziren eta Obra Zibilekoak %3,2.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2003ko abuztuan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: petroliotik eratorritakoak (%3,0), energia elektrikoa (%2,3), asfalto-produktuak (%1,7) eta zementu artifiziala (%0,7) lehengaiak. Bestalde, hileko batez besteko prezioen jaitsiera izan zuten honakoek: plastikozko hoditeria (%-1,6), metalezko hoditeria (%-0,7), lur erreak (%-0,3) eta ateratze-agregatuak (%-0,2) lehengaiak, besteak beste.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2003ko ABUztua
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil- beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	123,0	0,1	3,2	3,0	
ERAIKINAK	123,4	0,0	3,1	3,0	
OBRA ZIBILA	122,1	0,2	3,2	3,1	
LEHENGAIEN KOSTUA	115,2	0,1	1,3	1,1	
ERAIKINAK	115,7	0,1	1,3	1,1	
OBRA ZIBILA	113,9	0,3	1,5	1,2	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	135,9	0,0	5,8	5,8	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tlf:+34-945-01 75 05 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es